

INGURUMEN-KOMUNIKAZIOKO ESKOLA BIODIBERTSITATEA ETA NATURA-ONDAREA KOMUNIKATZEA

MIRAMAR JAUREGIA, DONOSTIA, 2020KO IRAILAREN 21 ETA 22

Ihobek –Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren sozietate publikoak–, eta Asociación de Periodistas de Información Ambiental-APIA elkarteak Ingurumen Komunikazioko Eskola bultzatzen dute. 2020ko edizioan, “Biodibertsitatea eta natura-ondarea komunikatzea” izan zen gai nagusia.

Eskola honen bigarren edizioa da, eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Udako Ikastaroen esparruan egiten da. 2020ko edizioa bi jardunalditan egituratu da irailaren 21ean eta 22an, goizean zehar eztabaida-hitzaldi eta -mahaiekin eta arratsaldean tailer praktikoekin.

2020ko edizio honetan, ikastaroaren helburua izan zen aztertzea nola lagun daitekeen komunikaziotik biodibertsitatea hobeto ezagutzen eta babesten, eta ekosistemek eta naturak eskaintzen dituzten zerbitzuak aintzat hartzen, ekonomiarako eta gizartearen ongizaterako funtsezkoak izanik. Ideia zen komunikazioaren esparrutik hausnartzea enpresek, erakundeek eta herritarrek modu jasangarriagoan bizitzeko eta ekoizteko ohituren eta jarreraren aldaketan duten inplikazioari buruz.

Bi jardunaldi emankorretan zehar, funtsezko ideietako bat izan zen emozioetatik komunikatzeko beharra, eta agerian gelditu zen ingurumen-hezkuntza eta ingurumen-komunikazioa banatzen –edo hobeto esanda lotzen– dituen lerro fina. Inaugurazio ofizialaren eta María García de la Fuente-ren irekiera-hitzaldiaren ondoren, APIAko lehendakari Lourdes Lázarak klimari eta biodibertsitateari buruzko komunikazioa nola hobetu jakiteko adibide bat erakutsi zigun, informazio zehatz eta ondo egituratuarekin baina giza historien bidez, giza ongizaterako biodibertsitateak duen balioa azpimarratuz, ikuspegi positiboarekin eta beste talde eta sektore batzuk inplikatur. Odile Rodríguez de la Fuentek, oso hitzaldi hunkigarrian, ingurumena hezkuntzan jarri behar dela ondorioztatu zuen. Naturak eskoletako ardatz nagusia izan behar du.

Bestalde, Cristina Mongek azpimarratu zuen klima-krisiak eta biodibertsitatearen krisiak gainjartzen diren konponbideak dituztela. Ezin da zaindu, ezta maite ere, ezagutzen ez duguna. Horregatik, Natura Bizia bezalako proiektuak funtsezkoak dira etxeko atean dugun aberastasun biologikoa erakusteko. Ikus-entzunezko produkzio bat da, Euskadiko eta Nafarroako natura bizia, bertako habitatetako espezieak eta inguratzen gaituzten naturaguneak hurbiltzen dizkiguna. Eta horixe izan zen, hain zuzen ere, jardunaldiaren

beste ideia nagusi bat: hitza eta irudia konbinatzearen garrantzia. Irudia hitzen indartzaile bikaina da.

Natura ere disfrutatzen da, gozatzeko. Eta kazetariak mendira, ozeanora, ibaietara... atara behar dute, ingurumenari buruzko komunikazioa ez direlako datuak bakarrik. Horrela jakinarazi ziguten Jose María Reviriego eta Guillermo Roa euskal kazetariak; izan ere, mahai-inguruan parte hartu zuten beren esperientzien berri emateko, Ihebeko Ekintza Klimatikoaren arloko Ainhize Butrónekin batera.

Arratsaldeko saioa Maria Josep Picók dinamizatutako transmedia narratibei buruzko tailer praktiko batekin amaitu zen.

Udako Eskolaren bigarren jardunaldian, Juan Luis Canok umorearen garrantziaz hitz egin zuen, ingurumenaren kausa argi ikusten ez duen edo errezeloarekin ikusten duen publikoarengana iristeko aparteko tresna gisa. Eta krisi-komunikazioaz hitz egiteko denbora ere izan zen. “Ez alferrik galdu inoiz krisi bat”, esan zuen Javier Valenzuelak; eta azaldu zuen krisiak aukera ona izaten direla ingurumen-komunikazio hobea egiteko.

Ondoren, mahai-inguru bat egin zen, Daniel Rodrigo-Cano, María José Parejo eta Óscar Menéndez-en parte-hartzearekin, María José Montesinosek dinamizatuta: bertaratutako parte-hartze handia sortu zuen. Interneten eta sare sozialen bidez interes komunak elkartzeko abantailez hitz egin zen –esaterako, hezikomunikazioko #EA26 kolektiboa–, eta aipatu zen ingurumen-hezkuntza sakonago bat behar dela klima-larrialdiaren eta biodibertsitate-galeraren aurka. Ekintza sortzeko beharrezkoa da hezte eta komunikatzea, eta, horretarako, ezinbestekoa da hunkiaraztea.

Bigarren jardunaldia osatzeko, saio praktiko interesgarria egin zuen Rocío Benaventek, Maldita.es komunikabidekoa, iturriei, informazio-zehaztasunari eta buloak eta berri faltsuak identifikatzeari buruzkoa.

2021eko Ingurumen Komunikazioko Eskolaren bigarren edizioa ideia argi batekin amaitu zen: biodibertsitatearen eta natura-ondarearen komunikazioan aurrera egiteko, audientziaren emozioei dei egin behar diegu, komunikazioa baita tresnarik garrantzitsuen eta presazkoena klima-larrialdiaren eta biodibertsitate-galeraren aurka.